

Año LV. urtea

135 - 2023

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

Hazitik liliak

Zenbait ekarpen euskal ikasketen ikerketan

Olatz Leturiaga Angoitia
Aitor Lizardi Ituarte
Iñigo Urrestarazu-Porta
(editore gonbidatuak)

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 135. zk. - 2023

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

HAZITIK LILIAK. ZENBAIT EKARPEN EUSKAL IKASKETEN IKERKETAN

Olatz Leturiaga Angoitia, Aitor Lizardi Ituarte & Iñigo Urrestarazu-Porta
(editore gonbidatuak / editores invitados / guest editors)

Hitzaurrea	
Olatz Leturiaga Angoitia, Aitor Lizardi Ituarte, Iñigo Urrestarazu-Porta	7
Itxurazko egonkortasun linguistikoa eta hazkunde indexikala Bermeoko (lako) aldagaian	
Azler Garcia-Palomino	11
Euskararen intonazioaren aldakortasuna: monografien ekarpena	
Varun DC Arrazola	53
Jarraitu aditzaren erregimen-aldaketa testu akademikoen argitan	
Sergio Monforte	69
Urigoitiko hiztegitxoari buruz	
Asier Gonzalez Casado	101
Lizarrako gazteak: euskararen erabileran oinarritutako hiztun berrien profilak	
Ainhoa Pardina Arenaza, Mikel Pérez González	125
Ama idazleak Aitaren <i>etxea</i> (2019) eta <i>Amek ez dute</i> (2018) eleberrietan	
Aitana Albisua-Ortiz	151
Espazioaren eta ibiliaren errepresentazioak Pello Lizarralderen bi eleberritan	
Asier Urkiza Sánchez	175
Orixeren <i>Mireio</i> (1930). Literatura proventzarraren eta euskal literaturaren arteko zubia	
Maialen Fernandez Martinez	205
Euskarazko bideojokoen azterketa deskribatzailea lokalizazioaren ikuspuntutik	
Itziar Zorrakin-Goikoetxea, Maitane Junguitu Dronda	231
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	277

Ama idazleak *Aitaren etxea* (2019) eta *Amek ez dute* (2018) eleberrietan

Madres escritoras en las novelas *Aitaren etxea* (2019) y *Amek ez dute* (2018)

Mother writers in *Aitaren etxea* (2019) and *Amek ez dute* (2018) novels

Aitana Albisua-Ortiz
Salamancako Unibertsitatea, USAL
albisuaortizaitana@gmail.com
<https://orcid.org/0000-0002-8453-1516>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv135.7>

Jasotze data: 2022/10/28. Behin-behineko onartze data: 2023/03/13. Behin betiko onartze data: 2023/05/08.

LABURPENA

Artikulu honek xede du ama idazleen irudikapenak aztertzea, Karmele Jaioen *Aitaren etxea* (2019) eta Katixa Agirreraren *Amek ez dute* (2018) eleberrietako protagonisten bidez. Horretarako, oinarri teoriko gisa hartu dira amatasunaren eta literaturaren arteko loturari buruz feminismotik egindako ekarpenak, bai eta euskal literaturaren esparruan egin diren amen irudikapenak ere. Horrela, pertsonaien analisi literarioaren bitartez hauteman daiteke nola eraikitzen diren bai ama idazleen esperientzia, bai amatasunaren kontradiskurtsoa; izan ere, amatasunaren eta idazketaren errealitatearekin zuzenean lotuta daude.

Gako hitzak: amatasuna; feminismoa; ama idazleak; Katixa Agirre; Karmele Jaio.

RESUMEN

Este artículo tiene como objetivo analizar las representaciones de las madres escritoras a través de las protagonistas de las novelas *Aitaren etxea* (2019) de Karmele Jaio y *Amek ez dute* (2018) de Katixa Agirre. Para ello, se emplean como base teórica las aportaciones hechas por el feminismo sobre la intersección entre maternidad y literatura, y la representación de las madres que se ha realizado en la literatura vasca. De esta manera, el análisis de los personajes nos permite observar cómo se articula tanto la experiencia de las madres escritoras como el contradiscurso de la maternidad que, en efecto, están directamente relacionadas con la realidad de la maternidad y la escritura.

Palabras clave: maternidad; feminismo; madres escritoras; Katixa Agirre; Karmele Jaio.

ABSTRACT

The aim of this paper is to analyze the representations of mother writers through the protagonists of the novels *Aitaren etxea* (2019) by Karmele Jaio and *Amek ez dute* (2018) by Katixa Agirre. In order to do this, I use as the theoretical basis the contributions made by feminism on the intersection between motherhood and literature, as well as the representation of mothers in Basque literature. In such a manner, the analysis of the characters allows us to observe how the experience of writer mothers is articulated, thus shaping the counterdiscourse of mothering. In addition, the analysis shows the existing connection between the counterdiscourse of mothering and the reality of motherhood and writing.

Keywords: motherhood; feminism; mother writers; Katixa Agirre; Karmele Jaio.

1. SARRERA. 2. AMATASUNA KRITIKA FEMINISTAREN ARGITAN. 3. AMATASUNA ETA LITERATURA. 3.1. Emakume idazleen sorkuntzaren errealitateak. 3.2. Amatasunaren irudikapena testu literarioetan. 4. AMA IDAZLEEN IRUDIKA-PENAK *AITAREN ETXEA* (2019) ETA *AMEK EZ DUTE* (2018) ELEBERRIETAN. 4.1. Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2019). 4.2. Katixa Agirrerren *Amek ez dute* (2018). 5. ONDORIOAK. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Amatasunaren gaia joan den mendearen amaiera aldera hasi zen lantzen teorialari feministen eskutik. Amatasunari buruzko lan esanguratsuenak feminismo anglosaxoiaren esparruan idatzi ziren gehienbat; esate baterako, amatasuna instituzio eta esperientzia gisa bereizi zuten Adrienne Rich-ek *Of woman born: Motherhood as experience and institution* (1976) eta Sara Ruddick-ek *Maternal thinking: Toward a politics of peace* (1995) lanetan. Feminismoan ez ezik, amatasunaren gaia gradualki azaleratuz joan zen emakume egileek idatzitako hainbat literatur generotako lane-tan ere.

Euskal literaturaren testuinguruan, Gema Lasartek (2012), bere doktore-tesian emakumeek idatzitako pertsonaia protagonista femeninoduneko eleberriak arakatzera-koan, ondorioztatu zuen amatasuna errepikapen-maiztasun deigarriko ardatz tema-tikoetako bat izan zela bildutako eleberrietan –guztira, 1979 eta 2009 urteen artean argitaratutako 27 eleberri–. Hain zuzen ere, corpuserako hautatutako eleberrien artean % 90ek lantzen zuen amatasunaren gaia (Lasarte, 2012, 34. or.). Berrikiago, Mari Jose Olaziregik (2019a, 15. or.) berretsi du datua. Harrezkero, literaturan oraindik su-matzen da gaiaren zentraltasuna –adibidez, aztergai ditugun nobeletan–, baita kritika feminista garaikidean ere.

Ildo horretan, artikuluko honek helburu du Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2019) eta Katixa Agirrerren *Amek ez dute* (2018) eleberrietako protagonisten bitartez ama idazleen irudikapenak aztertzea. Horretarako baliatuko diren oinarri teoriko nagusiak izango dira, batetik, feminisмотik egin diren amatasunari buruzko hausnarketa teorikoak,

emakume idazleen sorkuntza-baldintzak ardatz dituzten ikerlanekin batera. Bestalde, euskal literaturan egon diren amen irudikapenak bilduko dira, esku artean ditugun eleberrietako protagonistak dagokien testuinguru literarioan kokatzeko. Oinarri teorikoen bidez, gizarte patriarkaletan garatu den amatasunaren irudi prototipikoa eta idealizatua landuko da. Ondoren, kritika feminista eta emakume egileen amatasunari buruzko idazketak abiapuntutzat hartuta, eleberrietako ama idazleen bitartez egiten den amatasunaren irudikapenari xeheki behatuko zaio.

2. AMATASUNA KRITIKA FEMINISTAREN ARGITAN

Amatasunari buruz hedatu den diskurtso hegemonikoa definitu daiteke, funtsean, patriarkatuak amatasunaren bizipena arautzera eta horren gaineko kontrola bermatzera zuzendutako diskurtso modura: ama onaren arketipoaren zein argudio biologizisten bidez zedarritu da berau. Horren bitartez, gizarte heteropatriarkalek emakumeei egotzi ohi izan zaien ugaltzeko gaitasuna baliatu izan dute, amatasunaren bizipena haien xedetara egokituz (Saletti, 2008, 171. or.).

Diskurtso hegemonikoak amatasunaren esperientzia arautu zuen, bai ama izan bitartean, bai amatasunaren aurreko aroetan. Amatasuna emakumearen patu biologiko gisa ezarri zen, hots, amatasuna feminitatearen helduaroaren ikur bihurtu zen (Rich, 1995, 25. or.). Lorena Saletti adierazi zuen moduan, Patrice DiQuinzioaren *The impossibility of motherhood: Feminism, individualism, and the problem of mothering* (1999 apud Saletti, 2008, 174. or.) laneko planteamenduak aipatuz, emakumeek feminitatearen idealarekin bat egin behar zuten, horretako amatasuna objektu desiragarritzat izanik, ondoren ama izaterakoan ama onaren topikoa pertsonifika zezaten. Aitzitik, normarekiko disidenteak ziren emakumeak, diskurtso biologizistarekin bat etortzen ez zirenez, naturaren kontrakotzat jotzen zituen gizarteak. Hortaz, feminitatearen ideala betetzeak zekarren presioagatik, emakume ugari beren burua ama izatera behartuta ikusi zuten.

Behin ama izanda, Elisabeth Badinter-ek *¿Existe el instinto maternal? Historia del amor maternal. XVII al XX* (1991) lanean adierazi zuenez, *ama-sena* deitu izan dena zetorren, amen barnean sortzen zen pultsio biologikoa. Topiko hori geroago ama-maitasunaren topikoak ordezkatu zuen, nahiz eta, funtsean, ezaugarri berberak izan. Hau azaltzen du Badinterek diskurtso hegemonikoaren alderdi biologizista:

Hemos concebido durante tanto tiempo el amor maternal en términos de instinto, que de buena gana creemos que se trata de un comportamiento arraigado en la naturaleza de la mujer cualquiera sea el tiempo y el espacio que la rodean. Creemos que al convertirse en madre la mujer encuentra en ella misma todas las respuestas a su nueva condición. Como si se tratara de una actividad preformada, automática y necesaria que sólo espera la oportunidad de ejercerse. Como la procreación es natural, nos imaginamos que al fenómeno biológico y fisiológico del embarazo debe corresponder una actitud maternal determinada (Badinter, 1991, 12. or.).

Ama-senarekin eta ama-maitasunarekin batera, diskurtso horretatik eratorritako ama onaren arketipoaren bidez gauzatzen zen amatasunaren bizipenaren gaineko kontrola. Hortaz, ama onaren irudiak azken mendeetako amatasunaren norabideak ezarritu (Rich, 1995, 46. or.). Arketipoaren arabera, ama ona da umeen zaintzara eta hazkuntzara erabat dedikatzen den ama, haurraren interes eta beharrak bere egiten dituen eta, horren ondorioz, bere errealizazio pertsonalari uko egiten diona. Bestalde, inposatutako bizipen idealizatu hori urrun zegoen amek izandako bizipenetik; erruaz, bakardadeaz, identitatearen eta autonomiaren galeraz markaturiko esperientziak gailentzen baitziren. Betebehar eta irudi horiek osatu zuten emakumeei zuzendutako amatasunaren diskurtso esentzialista eta bateratua. Horren aurrean, teoriarik feministek ekin zioten lehenengoz amatasunari buruzko diskurtso hegemonikoa urratzeko bideari, ama onaren arketipotik hasita:

La identificación con ese ideal permite acceder a una identidad ilusoria que proporciona una imagen falsamente unitaria y totalizadora. Se ha intentado adaptar a las mujeres a un ideal maternal asexualado, carente de deseo y de hostilidades, para adecuarla a una perfecta relación filial que debe cumplir a la perfección si no desea ver peligrar su feminidad y su aceptación social. De ahí la necesidad de deconstruir los ideales para poder situar la maternidad en relación con la multiplicidad de deseos, opuesta a la identidad que imponen las sociedades patriarcales (Saletti, 2008, 177. or.).

Bide horretatik, amatasunari buruzko teorizazio feministek patriarkatuaren mendeko amatasunaren eta amen berezko bizipenaren arteko bereizketa ekarri zuten. Esparru horretan, ekarpen esanguratsuenak Adrienne Richek eta bere belaunaldiko aktibista feministek egin zituzten. Adrienne Rich aktibista lesbiana eta feministak *Of woman born: Motherhood as experience and institution* (1977) lanean amatasun patriarkalaren eta amatasunaren bizipen pertsonalaren artean existitzen den aldea azpimarratuz, amatasun patriarkala *amatasunaren instituzio* izendatu zuen –Sara Ruddickek (1995, 29. or.) *amatasunaren ideologia* deitu zuena–. Hortaz, hastapenetik amatasunaren gaiari buruz egindako ekarpen nagusiak testuinguru anglosaxoi batetik abiatu ziren batez ere, eta, beraz, Mendebaldeko amatasunaren ikuspegitik idatzi ziren.

Richen amatasunaren instituzioaren planteamendua hurrengo belaunaldietako feminista lesbiana, arrazializatu eta ama ez direnen abiapuntua izan da (Yañez, 2017, 62. or.), proposamen teoriko horri lanketa interseksionala gehitu diotenak. Izan ere, XXI. mendean interseksionalitatea izan da amatasunaz argitaratu diren hausnarketan ardatz nagusia. Ildo horretako lan aipagarriak dira Maria Llopis-ek karrikaratutako *Maternidades subversivas* (2015) eta Gracia Trujillok eta Eva Abril-ek argitaratuta zuten *Maternidades cuir* (2020) lana. Bikote-harreman monogamo eta heterosexualetan garatzen den amatasuna baino gehiago, lanek egitura heteronormatiboetatik kanpoko amatasunen lekukotasunak biltzen dituzte; hain zuzen ere, ikuspegi *queer*, feminista eta antikapitalista txertatzen dizkietenak amatasunari buruzko teorizazioei.

Behin patriarkatuaren mendeko amatasunaren ezaugarriak aztertuta, feministek amatasunaren instituzioak emakumeengan eragindako ondorioak ikertzeari ekin zioten. Ondorioei buruz egindako azterlanei dagokienez, gizarte euskaldunari aplikatuta ageri da

Teresa del Valle-k zuzendu zuen *Mujer vasca: imagen y realidad* (1985) XX. mendeko emakume euskaldunari buruz egindako ikerketa antropologikoa. Del Valleren arabera (1985, 146. or.), emakume euskaldunari tradizionalki egokitu zaizkion rol nagusiak amarena eta emaztearena izan dira. Bien artean, amatasuna litzateke emakumeen askatasuna gehien mugatzen duen rola, emakumea eremu domestikora lotzen duena eta, aldi berean, bestelako ekimenetan parte hartzeko aukerak murrizten dituen. Era berean, Del Valle (1985, 134. or.) amatasunaren eskaintza mailan dauden ezberdintasunak azpimarratu zituen, adinaren arabera umeak amarekiko duen mendekotasuna nabarmen aldatzen baita.

Aurretik azaldu den eran, ama izatea ez zen nahikoa patriarkatuak ezarritakoarekin betetzeko, amek ezinbestean ama onaren irudiarekin bat egin behar baitzuten. Hori dela eta, honela mintzo zen Susan Griffin (2020, 53.-54. or.) haren esperientzia oinarrituta: «Estaba rodeada de madres arquetípicas, [...]. No lo soportaba. Nadie hablaba de mi experiencia personal, muda y ciega». Beraz, topikoarekin bat egiteko beharrak amatasunaren bestelako bizipenen zentsura eragiten zuen. Horregatik, instituziotik kanpoko amatasunari buruz lehendabizi hausnartzerakoan, amatasunaz existitzen zen ezagutza eta lekukotzen falta azpimarratu zuten feministek. Adrienne Richen esaldi ezagunetarikoa batek zioen moduan: «We know more about the air we breathe, the seas we travel, than about the nature and meaning of motherhood» (Rich, 1995, 11. or.). Gainera, amatasunari buruzko lanen hutsunea harago zihoan. Ruddickek nabarmendu zuen moduan (1995, 29. or.), esperientziari buruzko idazkirik ez egoteaz gain, amatasunaren bizipenaz modu errealista batean idatzi ahal izateko hizkuntza propio baten falta ere sumatzen zen. Gaiari buruzko ikerketen aitzindari izanda, Griffinek (2020, 51. or.) jada 1974an salatu zuen bere garaian amatasunaz eta feminismoaz gutxi idatzi izan zela. Era berean, Susan Rubin Suleiman-ek (1986, 362. or.), amatasuna emakumeen ahalmen sortzaileekin batera aztertzerakoan, antzeko baieztapena egin zuen hamabi urte geroago (*M)other tongue essays in feminist psychoanalytic interpretation* lanean.

Testuinguru horretan, feministek eta idazleek amatasunaren lehen pertsonako errelatu subjektibo berria garatzeari ekin zioten; instituzioari esperientzia kontrajarri eta amatasunari buruzko hizkuntza berrasmatu zuten, artikulu honetan *amatasunaren kontradiskurtso* deituko duguna. Amatasunaren kontradiskurtsoa garaiko zenbait lan artistikotan agertu zen; adibidez, Jane Lazarren *The mother knot* (1976) eleberrian. Ama-maitasun/-senaren irudi idilikoaren aurrean, kontradiskurtsoaren bidez aurretik isilaraziak izan ziren amen sumindurari buruzko idazketak lehen lerrora ekartzen hasi zen. Tematikoki bi multzotan bereizi daitezke: «opposition and integration, motherhood as obstacle or source of conflict and motherhood as link, as source of connection to work and world» (Suleiman, 1986, 362. or.). Bi harien barruan bestelako gaiak ere aurkitzen dira: erruduntasuna, maitasuna, errerealizazio pertsonalaren eta umearen beharren arteko problematika, bakardadea... (Suleiman, 1986, 362. or.). Denborarekin, amatasunari buruzko lanetan bestelako gai eta kezak azaleratu ziren, hala nola denbora (falta), identitatearen ukapena eta, batez ere, anibalentzia.

Amatasunari buruz idatzitako errelatuetan, amatasunaren alde positiboak edo negatiboak irudikatzearen ikuspegi binariotik harago, esperientzia sentimenduen bi ertzetan mugitzen zen anabasa aldakor gisa errepresentatzen hasi zen batez ere. Adrienne

Richen egunerokotik hartutako hurrengo pasartean ikus daiteke: «My children cause me the most exquisite suffering of which I have any experience. It is the suffering of ambivalence: the murderous alternation between bitter resentment and raw-edged nerves, and blissful gratification and tenderness» (Rich, 1995, 21. or.). Hain zuzen ere, amatasunari buruzko hainbat lan literariotan aurkitzen den sentimendua.

3. AMATASUNA ETA LITERATURA

3.1. Emakume idazleen sorkuntzaren errealitateak

Amatasunaren eta literaturaren arteko loturari buruz idazteak emakume idazleen sorkuntzarako baldintzak eta literatur lanetan ageri diren amen irudikapenak aztertze-ra garamatza. Lehen gaiaren harira, irakurketa feministen lan fundazional den *A room for one's own* (1929) saiakeran, Virginia Woolf-ek emakumeek eleberriak idazteko baldintza aproposak ikertu zituen. Prozesuan zehar, Woolf jabetu zen lan literario bat sortzeak berez zekarren zailtasunaz:

to write a work of genius is almost always a feat of prodigious difficulty. Everything is against the likelihood that it will come from the writer's mind whole and entire. Generally material circumstances are against it. Dogs will bark; people will interrupt; money must be made; health will break down. Further, accentuating all these difficulties and making them harder to bear is the world's notorious indifference. It does not ask people to write poems and novels and histories; it does not need them (Woolf, 1977, 58. or.).

Emakume egileen kasuan, ordea, egoera are eta latzagoa zen, axolagabetasunarekin ez ezik, munduaren aurkakotasunarekin ere egiten baitzuten topo. Hori dela eta, Woolfek emakumeek eleberriak idatzi ahal izateko beharrezko baldintzak ikertzeari ekin zion. Horretarako, Erresuma Batuko emakume literatura-idazleen profilak sakon behatu zituen; horien artean, Lady Winchilsea, Lambeko dukesa, Charlotte Brontë eta Jane Austenenak. Lortutako ondorio nagusiak izan ziren independentzia ekonomikoa eta logela propio bat, hau da, pribatutasuna edukitzea zirela literatur lan bat garatzea posiblea egiten zuten aldagaiak.

Bi baldintza horiekin batera, bere garaian arreta gehiegi eskuratu ez zuen hirugarren bat ere aipatzen zen: amatasuna. Amatasuna edo, hobeto esanda, ama ez izatea, zen emakume idazleen profilek partekatzen zuten beste ezaugarri nagusietako bat. Egilearen hitzetan: «[...] the possibly relevant fact that not one of them had a child» (Woolf, 1977, 73. or.). Geroago, Alice Walker (2020, 160. or.) feminista afroamerikarrak beste-lako baldintza bat gehitu zion Woolfen baieztapenari: ezinbestekoa zen idazleak ume-rik gabekoak izatea, bai eta zuriak izatea ere.

Virginia Woolf ez da amatasunak idazketan duen eragina aztertu duen bakararra. Tillie Olsen-ek 1962an *Silences* argitaratu zuen, sorkuntza-prozesuan gerta daitezkeen idazleen isilaldiei buruzko ikerlana. Aztergai zituen isilaldi-motak honela definitu zituen:

These are not natural silences, that necessary time for renewal, lying fallow, gestation, in the natural cycle of creation. The silences I speak of here are unnatural; the unnatural thwarting of what struggles to come into being, but cannot. In the old, the obvious parallels: when the seed strikes stone; the soil will not sustain; the spring is false; the time is drought or blight or infestation; the frost comes premature (Olsen, 2003, viii. or.).

Hortaz, «isilaldi antinatural»-ak balira bezala ulertzen dira sorkuntzarako behar den erabateko dedikazioa eragozten duten baldintzen eraginez gertatzen diren ekoizpen literariorik gabeko aroak. Isilaldi horien eragileak askotarikoak izan daitezke; adibidez, zentsura, sorkuntzarako egoera ezegokiak, zein bestelako erantzukizunak –lana, umeen ardura, zainketak eta abarrak–. Sorkuntzarako egoera egokia lortzea ez da soilik bizi-baldintzen arabera, egileak gizartearen hierarkian betetzen duen tokiak ere eragin nabarmena baitu idazketa-prozesuan; hala, Olsenek (2003, 9. or.) azpimarratu zuenez, ibilbide literario bat garatzea are eta zailagoa suertatzen da identitate marginala idazleentzat kasuak. Gaiari generoaren ikuspuntutik helduz, aurretik Woolfeko aztertutako emakume idazleentzat zerrenda dezente zabaldu zuen Olsenek, eta aurretik idazle britaniarrak eman zituen ondorioak indartu zituen. Haien bizi-baldintzak aintzat hartuta, hurrengo aipuak erakusten du emakumeak zer baldintzatan izan ziren idazteko gai:

In the last century, of the women whose achievements endure for us in one way or another, nearly all never married (Jane Austen, Emily Brontë, Christina Rossetti, Emily Dickinson, Louisa May Alcott, Sarah Orne Jewett) or married late in their thirties (George Eliot, Elizabeth Barrett Browning, Charlotte Brontë, Olive Schreiner). I can think of only four (George Sand, Harriet Beecher Stowe, Helen Hunt Jackson, and Elizabeth Gaskell) who married and had children as young women. All had servants.

In our century, until very recently, it has not been so different. Most did not marry (Selma Lagerlöf, Willa Cather, Ellen Glasgow, Gertrude Stein, Gabriela Mistral, Elizabeth Madox Roberts, Charlotte Mew, Eudora Welty, Marianne Moore) or, if married, have been childless (Edith Wharton, Virginia Woolf, Katherine Mansfield, Dorothy Richardson, H.H. Richardson, Elizabeth Bowen, Isak Dinesen, Katherine Anne Porter, Lillian Hellman, Dorothy Parker). Colette had one child (when she was forty). If I include Sigrid Undset, Kay Boyle, Pearl Buck, Dorothy Canfield Fisher, that will make a small group who had more than one child. All had household help or other special circumstances (Olsen, 2003, 16.-17. or.)¹.

1 Zerrenda gehiago luzatzen du Olsenek aurreragoko orrialdeetan: «And indeed, in our century as in the last, until very recently almost all distinguished achievement has come from childless women: Willa Cather, Ellen Glasgow, Gertrude Stein, Edith Wharton, Virginia Woolf, Elizabeth Bowen, Katherine Mansfield, Isak Dinesen, Katherine Anne Porter, Dorothy Richardson, Henry Handel Richardson, Susan Glaspell, Dorothy Parker, Lillian Hellman, Eudora Welty, Djuna Barnes, Anaïs Nin, Ivy Compton-Burnett, Zora Neale Hurston, Elizabeth Madox Roberts, Christina Stead, Carson McCullers, Flannery O'Connor, Jean Stafford, May Sarton, Josephine Herbst, Jessamyn West, Janet Frame, Lillian Smith, Iris Murdoch, Joyce Carol Oates, Hannah Green, Lorraine Hansberry» (Olsen, 2003, 31. or.).

Zerrendatutako azken mendeetako emakume idazleen artean, ezkondu ez ziren eta umerik izan ez zuten egileen profila da nagusi eta, horiekin batera, zerbitzu domestikoa izan zutenak. Haatik, emakume idazle eta langileen bizipenak bestelakoak izan ziren, Olsenek berak bere esperientziaren bitartez adierazi bezala: «In the twenty years I bore and reared my children, usually had to work on a paid job as well, the simplest circumstances for creation did not exist. Nevertheless writing, the hope of it, was “the air I breathed, so long as I shall breathe at all”» (Olsen, 2003, 19. or.). Lan egiten zuten ama idazleentzat egoerak behartuta bigarren mailako ekimena izatera igarotzen zen literatura. Hortaz, ondoriozta daiteke emakumeentzat idaztea bideragarria dela tradizionalki egotzi zaizkien rol eta ardurak alde batera utziz gero eta, gainera, egoera ekonomiko ona izanez gero.

Generoaren ikuspegitik, hauteman daiteke idazketa eta umeen zainketa batera uztartzeko erronka emakume idazleen kasuan bakarrik gertatzen dela. Ama idazleen kasuan, Woolfek azpimarratutako norberarentzako logela izatearen beharra ukatuta dago, Laura Mintegik Eider Rodríguezi (2019, 47. or.) aitortu zion moduan, haienak umez beteriko logelak baitira. Guztiarekin ere, baieztatu daiteke amatasuna, izatez, ez dela bateraezina bestelako ekimenak egiteko. Amatasuna eragozpen bihurtzen da amek umeen erabateko ardura dutenean, hain zuzen ere, tradizionalki emakumei bakarrik ezarri zaien erantzukizuna izateagatik.

Horri lotuta, Suleimanek, Helene Deutschen lanaren *Psychology of women Vol. II.* laneko (apud Suleiman, 1986, 358.-359. or.) planteamenduetan oinarrituta, amatasuna eta idazketari buruz gogoetatzean «edo bata edo bestearen teoria» (*either/or theory*) proposatu zuen. Horren arabera, amek lanbidea eta interesak kudeatzeko hiru aukera dituzte: ama izatea eta egin nahi duten lan artistikoa sakrifikatzea, umeak ez izatea ibilbide artistikoa garatzekotan edo umeak independenteak direnean idazteari ekitea. Hala ere, amatasunaren eta sorkuntzaren arteko tentsioak ez dira soilik lan artistikoak eratzekeko prozesuan pairatzen. Amatasuna eta idazketa uztartzea lortu duten emakumeek, behin beren lana argitaratuta ikustean, gutxiespena jaso dute emakumeak izateagatik.

The ancient, continuing envy, awe, and dread of the male for the female capacity to create life has repeatedly taken the form of hatred for every other female aspect of creativity. Not only have women been told to stick to motherhood, but we have been told that our intellectual or aesthetic creations were inappropriate, inconsequential, or scandalous, an attempt to become “like men”, or to escape from the “real” tasks of adult womanhood: marriage and childbearing (Rich, 1995, 40. or.)².

2 Adrienne Richek aipatzen duen emakumearen gaitasun sortzailearen harira, bere lanaren gaztelarazko itzulpeneko Carolina Leonek (2020, 22. or.) hitzaurrean idatzitakoa ekarri nahiko genuke lehen lerrora, bereziki azkenengo zatia: «A mí me gustaría meter a Adrienne Rich en la *ouija* otra vez y contarle que la institución de la maternidad nos sigue afectando, a mujeres en el mundo entero (hemos avanzado tan poco), pero también a hombres trans y otros cuerpos que no se identifican a sí mismos como mujeres».

Dena den, gero eta emakume gehiagok aldarrikatzen dute eskubide gisa ama- eta idazle-jarduera, edo beste edozein profesio, uztartzeko (Olsen, 2003, 32. or.). Emakumeei ezartzen zaien espektatiba sozialekin hautsi dute eta biak uztartzeko moduak bilatzen dihardute.

3.2. Amatasunaren irudikapena testu literarioetan

Ikerketa feministek XX. mende amaieran salatu zuten amatasunari buruzko lanen urritasunarekin alderatuta, esan daiteke literatura garaikidean tematika bereko lanek nolabaiteko gorakada izan dutela, gaiari buruz argitaratu diren literatur lanen kopuru ugariak erakusten duenez. Gorakada horren adibide modura aipa daitezke, adibidez, literatura anglosaxoiko amatasunari buruzko literaturan esanguratsuak diren Alice Sebolden *The almost moon* (2007), Elisa Alberten *After birth* (2015), Maggie Nelsonen *The Argonauts* (2015), Sheila Hetik idatzitako *Motherhood* (2018), Meaghan O'Connell *And now we have everything: On motherhood before I was ready* (2018) eta Helen Philipsen *The need* (2019). Gaztelaniaz idatzitako produkzio literarioan hauek aipa daitezke: Beatriz Espejo-k eta Ethel Kolteniuk Krauze-k bildutako *Atrapadas en la madre. Antología de cuentos* (2007), Gabriela Wiener-ek bere haurdunaldian oinarrituta idatzi zuen *Nueve lunas* (2009), Silvia Nanclares-en *Quién quiere ser madre* (2017), Nuria Labari-ren *La mejor madre del mundo* (2019), Guadalupe Nettel idazle mexikarraren *La hija única* (2020) nobela, Lorena Salazarren *Esta herida llena de peces* (2021), Ana Torres-en *Si los bebés cambian de color* (2022) eta «Embarazos literarios» (2020) artikuluan Mey Zamorak bildutako beste hainbat liburu.

Emakumeek idatzitako euskal literaturan amatasunaren gaiak zentratutasun deigarria izan du. Aurretik adierazi den moduan, Gema Lasarteren *Feminist agenda* (2012) lanaren corpusa osatzen duten eleberrietako % 90etan lantzen baitzen amatasuna. Horien artean XXI. mendean idatzitakoak dira, adibidez, Jasone Osororen *Greta* (2003), Laura Mintegiren *Sisifo maiteminez* (2003) eta Karmele Jaiok idatzitako *Amaren eskuak* (2006). Narratibarekin jarraituz, Gema Lasartek berak amatasuna mintzagai duten ingelesera itzulitako ipuin-bilduma osatu zuen 2014an *Ultrasounds: Basque women writers on motherhood* izenekoa. Bildutako egileen artean ageri dira artikulua honetan aztergai ditugun Katixa Agirrek eta Karmele Jaiok idatzitako ipuinak, beste zenbait idazlerekin batera; hala nola, Uxue Apaolaza, Miren Agur Meabe, Aurelia Arkotxa eta Irati Arrieta. Eleberrigintzaz gain, beste genero batzuetan ere amatasunari buruz idatzitako lanak ageri dira: Arantxa Iturberen *Ai ama!* (1999) edo Maite López Las Herasen *Amatu* (2022) saiakerak; Goiatz Labandibarren *Amez* (2022) ipuin-liburua; amatasunaren eta aitatasunaren lekukotzak biltzen dituen Estitxu Fernandez-en eta Erika Lagomaren *M ama* eme* ume* (2022) lana, edota Ane Villagranek (2021) euskal poesian ageri diren diskurtso matrofobikoak iker-tzerakoan ikergai izandako Mari Luz Estebanen *Amaren heriotzak libreago egin ninduen* (2013), Ione Gorostartzuren *Ez da erditzea* (2019) eta Leire Bilbaoren *Scanner* (2011) poema-liburuak. Halaber, amatasunaren gaia esparru literariotik harago doazen ekimenetan ere landu da. Horren adierazle dira, esate baterako, *Sormene* egitasmoak 2022an amatasuna, sorkuntza eta euskara landu izana, Emagin Elkartek antolatutako «(Ez)Amatasunak Ikuspegi Feministatik» (2022) jardunaldiak, bai eta Hondarribiko 28. Euskal Liburu eta Disko Azokan egindako «Amatasuna. Euskal idazle emakumeak» erakusketa ere.

Euskal literaturaren testuingurura bueltatuz, Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (1998) eta Lourdes Oñederraren *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) eleberriak amatasunari buruzko erreferentziazko lan izatera heldu dira; amatasunaren bizipen hegemonikoa irudikatzen ez duten eleberriak, hain zuzen. Oñederraren eleberriko Teresa protagonistarentzat amatasuna hartu beharreko hautu gatazkatsua balitz bezala azaltzen da; inposatutako patuaren eta garapen pertsonalaren artean aukeratzera bultzatzen du (Olaziregi, 2019b, 404. or.). Urretabizkaiaren nobelak, aldiz, bestelako bidea hartzen du: konpromiso politikoaren argitan amatasunari buruz idatziz, bien arteko bateragarritasunean sakontzen du egileak. Izenik gabeko Ama protagonistak amatasunaren hainbat topiko hausten ditu, ama onaren arketipoa betetzen ez duen unetik, ez baititu amatasuna eta bere umeen zaintza bere bizitzaren erdigunean jartzen. Era berean, Amak jasotako genero-rolak auzitan jarritz, nazionalismoak borrokaren barruan emakumeei esleitutako paperari kontra egiten dio (Olaziregi, 2019b, 401. or.). Ikusten denez, gaiari buruzko eleberri kanonikoetan amatasunarekiko harreman gatazkatsuak biltzen dira, esperientziaren ukapen definitiboaz zein ukapenak inposatzen dituen mugez idazten dutenak. Aztergai ditugun pertsonaia eta eleberrietara bueltatuz, bi emakume protagonistek amatasunaren esperientzia bizi izan dute bere osotasunean, hau da, amatasun arautuaren zama jasan dute eta, era berean, erresistentzia-moduak bilatu dituzte.

4. AMA IDAZLEEN IRUDIKAPENAK AITAREN ETXEA (2019) ETA AMEK EZ DUTE (2018) ELEBERRIETAN

Kritika feminista abiapuntutzat hartuta, jarraian datorren analisi literarioaren bidez fokua bi eleberrietako emakume protagonisten amatasunaren eta idazketaren bizipenetan jarriko da. Bide horretatik, eleberrietako orrialdeetan ageri diren pertsonaien esperientzia eta gogoetek baimenduko digute bi ekimenen arteko erronkan sakontzea. Amatasunaren kontradiskurtsoa nola garatzen den behatuz, eleberriko pasarteek errealitatearekin izan ditzaketen loturak aztertzen dira.

Literatur lanen trama labur aurkezteko, Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2021) Jasoneren, Ismaelen eta Liberen ahotsen bidez egituratzen den eleberri polifonikoa da. Jasonek eta Ismaelek osatzen duten bikotea familia-harreman tradizionalen isla da, nolabait. Jasonek, inguruko zainketez arduratu behar duen bitartean, bere ekimen pertsonalak alde batera utzi behar izan ditu. Bitartean, Ismael bere barne-munduan murgilduta egon da, bere ibilbide literarioa bere kezka bakar eta nagusi izanik.

Bien paperak guztiz aldatzen dira Ismaelen amak izandako istripuaren ondoren Ismaelek aitaz arduratu behar duenean. Une horretan Jasonek, emakumeei sistematikoki egotzi izan zaien zainketen erantzukizunetik aske dagoenean, bere identitatea gizabako, emakume eta idazle gisa berreskuratzeko bidaia hasten du idazketaren bitartez. Ismael, ordea, bere haurtzaroko etxera bueltatzean, maskulinitate hegemonikoari buruzko gogoetaren eremuan barneratzen da. Libe, Ismaelen arreba eta Jasoneren laguna, da narrazioa egituratzen duen hirugarrengo pertsonaia. Libe bere militantzia politikoagatik zein bere identitate sexualagatik Euskal Herriko Berlinera atzerriratzen da.

Liberen pertsonaia Jasoneren gaztaro iraultzailearen oroigarria da eleberrian, bai eta haren bidaidea ere. Narrazioan amatasuna bigarren plano batean jorratzen bada ere, *Amek ez dute* (2020) eleberriarekin aldaratuta, Jaioren nobelak bestelako ama idazlearen irudikapena eskaintzen du.

Katixa Agirrek arauarekin bat ez datorren ama idazlearen eta ama ankerraren topikoa pertsonifikatzen dituzten bi pertsonaien bidez amatasuna eta literatura jartzen ditu bere eleberriaren erdigunean. Protagonista nagusia izenik gabeko idazle eta ama berria da. Gaztaroan ezagutu zuen Jadek –geroago *Alice* izena hartu zuenak– bere umeak akabatu dituelako berria jasotzean kasuari buruzko ikerketa eta idazketari ekiten dio. Amatasuna eta idazketa uztartzeko ahaleginetan, protagonistak Jade/Alice zein bere burua ulertzeko prozesu introspektiboa biltzen duen narrazio dokufikzionala egiten du. Era berean, amez beteriko eleberria da. Hala, protagonista eta Jaderekin/Alicerekin batera ageri diren bestelako amen irudikapenen bidez, amatasunaren alderdi anizkun eta ez-hegemonikoak aurkezten ditu. Hala, amatasun idilikoaren irudiaren haustura dakar Agirreren eleberriak eta, horren ordez, bizipenaren erretratu errealista eraikitzen du.

4.1. Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2019)

Karmele Jaiok, Miren Gabantxo-Uriagerekarekin izandako elkarrizketan aitortu zuenez, bere eleberrigintzaren bidez patriarkatuaren mendeko ordena sozialak zein generoak gizabanakoen bizitza nola baldintzatzen duten ikertzea du helburu (Gabantxo-Uriagereka, 2022, 116. or.). Horrekin lotuta, generoaz diharduten literatur lanen presentziak Euskal Herriko testuinguru soziopolitikoarekin du lotura; gatazka armatuaren amaierak bestelako mugimenduen ikusgarritasuna ugaritzea ekarri zuen, horien artean, mugimendu feministarena (Azpeitia, 2022, 117.-118. or.). Aztergai dugun nobelari, generoaren arabera gizabanakoen artean dauden ezberdintasunetan sakontzen da, zehazki, maskulinitatearen eta zaintzen auzietan.

Jasoneren pertsonaiarengan gaztarotik nabarmendu da haren genero-kontzientzia, hots, generoak eragindako ezberdintasun sistemikoaz zein sistematikoaz jakitun izatea. Hala izan arren, Jasek sexismoaren ondorioak pairatzen ditu kontakizunean. Helduarora heltzerakoan, feminitatearen espektatiba sozialekin betetzeko presioa jasaten du. Horren eraginez, bazterrean uzten ditu bere bizitzan zehar gizabanako bezala zuen identitatea eta idazketa, egoerak eta gizartearen eskema sexistak behartuta, alaba, ama eta emazte izateko.

Narrazioa hasten den unean Jasonerentzat amaituak dira bere gurasoekiko ardura eta bere alaben hazkuntzaren betebeharrak; bere bizitzaren muina izan ohi zen zainketen erantzukizuna bigarren plano batera igarotzen da. Hala, Jasek aurretik ukatu behar izan zuen idazteko grina berreskuratzen doa bere bortxaketa imajinarioaren deskribapenarekin hasten den eleberriaren eskutik. Jasek ageriko genero-ikuspegi-ko eleberria idazten du; dimentsio kolektibo batetik hitz egiten du. Pertsonaia horrek, idazketa prozesua hasterekin batera, literaturarekiko izan duen bizipenari buruz hausnartzeari ekiten dio.

Idazketa berreskuratzea da, alaba, emazte eta ama izateaz gain, gizabanako gisa duen bere identitatea bilarazten dion gertakizuna. Aldi berean, Jasonek egoera horretara eramane duten gertakizunei buruzko hausnarketa erretrospektiboa egiten du orrialdeetan zehar. Iraganera egindako begirada horretan agertzen dira, hain zuzen ere, amatasunaren gaia eta bere idazketan izan zuen eragin erabakigarria:

Baina ezin nuen zehatz-mehatz ikusi noiz, zein momentutan utzi nion idazteari. Noiz hasi zen nire errenuntzia, nire heriotza txiki hura.

Libek hasieratik ohartarazi ninduen. Lehen haurdunaldiaren ondotik, telefonoz esaten zidan, ondo gogoratzen dut, ezin nuela hainbeste errenuntzia egin. Nire ipuin berriak irakurtzeko gogoia zuen. Saiatu nintzen azaltzen, zinez, ez zela erraza idazten jarraitzea. Hasieran umeak ziren. Umeak beti gainean. Eta, bitartean, Ismael bere idazketan murgilduta. Ordurako eskatua zuen eszedentzia lanean, bere lehen nobelak izandako arrakastaren ondoren. *Isilik, aita idazten ari da eta, goazen parkera lasai idatz dezan. Bere Obra Handia idatz dezan. Gero, urtetara, gurasoak [...]. Non aurkitu behar nuen indarra, non denbora eta kontzentrazioa idazteko?* (Jaio, 2021, 86. or.)³.

Hasiera batean amatasuna izan zen Jasoneren «heriotz [literario] txikia» ekarri zue-na, gerora gurasoen zainketen ardura gehitu baino lehen. Horrenbestez, pertsonaiak edo bata edo bestearen teoriari (*either/or theory*) aurre egin behar izan zion (Deutsch, 1945 apud Suleiman, 1986, 358.-359. or): ekimenak eta zaintzak batera uztartze-ko ezintasunaren aurrean, literatura geroko utzi behar izan zuen. Are, Jasone ama izatean bere barrutik zetozen «emakumeen ahotsak» (Jaio, 2021, 44. or.) entzuten hasi zen, literatura bazterrean lagatzera premiatzen zutenak. «Ahots» horietan ikus daiteke emakumeen *psychean* barneratuta dagoen ama onaren ideala eta ideal horren ordezkariak eragiten duten presioa, bere interes bakarra haurren zaintzak eta heziketak izan behar dutela gogorarazten diotenak. Arketipoaren arabera, ama ona ama besterik ez baita. Haatik, amek pairatzen duten presio soziala ez du bakarrik ama onaren topikoak eragiten. Alderdi horretan badu zerikusirik aitek umeen zaintzan duten parte-hartzeak ere. Lasartek (2012, 731. or.) azpimarratu zuenez, amatasuna rol bakarra eta bakartia da, beste ekimenetarako aukera urriak uzten dituen. Hala ere, bateraezintasuna ezin daiteke hartu amatasunaren berezko ezaugarritzat. *Aitaren etxea* eleberrian, praktika sozial horren izaera murriztailea Ismaelen parte-hartzerik ezak eragiten du. Ismaelek, bere lan literarioa egiteko, alabak zaintzeko eta hezteko ardurei uko eginez, erantzukizuna Jasonerengan lagatzen du, erabat. Lorea Azpeitiak zera dio:

Ismael eta Jasoneren kasuan, aldiz, Ismael idazlea da ofizioz. Jasone ere, berez, bada idazlea, baina ezkutuan idazten du, ez da bere ogibide ofiziala. Aldiz, bera da diru-sarrera egonkorra etxera dakarrena, liburuzaina baita. Zentzu horretan gorago

3 Karmele Jaio idatzitako *Aitaren etxea* 2019an argitaratu bazen ere, artikulu honetako aipuetarako 2021eko edizioa baliatu da.

deskribatutako dinamikak [Ismaelek gurasoenak] iraultzen direla lirudike, baina oso kontuan hartzekoa da harreman horretan norengan erortzen den etxekoen ongizatea bermatzearen zama (Azpeitia, 2022, 127. or.).

Nancy Houston-ek (1995, 711. or.) esana du idazleak, naturaz, berekoiak direla. Idazleen berekoikeriari generoaren ikuspegitik erreparatuz gero, ikusten da Jasoneren kasuan norberekoikeria ezin daitekeela bat etorri ama izatearekin. Jasonek alde batera uzten du egilearen ustezko norberekoikeria, bai eta idazketa ere, amatasunaren alde; ez bakarrik amatasunaren eskakizun-maila altuagatik, baita Ismaelen parte hartzerik ezagatik ere. Gizon eta idazle den heinean, generoak ematen dion laxotasuna baliatzen du, eta, gainera, gizarteak ez du horregatik gaitzesten. Kontrako ikuspegitik ikusita, Ismaelek aitatasuna aktiboki garatu izan balu, litekeena da erantzukizun partekatua Jasoneri bestelako jarduerak egiteko aukera eman izana. Hala eta guztiz ere, berriro betetzen da Arantxa Urretabizkaiak (Rodríguez, 2019, 34. or.) esandakoa: aitek umeak dituzte, baina amek haien ardura hartzen dute beren gain.

Umeen heziketaz aparte, gurasoen zaintzaz arduratzearen harira, agerikoa da nolakoa den Ismaelen jarrera zainketaren betebeharren aurrean. Bere arreba ezin dela haien aitaz kargu egin jakiterakoan, «Liberi mesede bat egiten ari zarela» eta «ez da zure lana» (Jaio, 2021, 74. or.) dio Ismaelen barne-ahotsak. Ahotsak aditzera ematen du bere genero-rolaren zehaztasunez kontziente dela eta, beraz, zainketen erantzukizuna ez dagokiola berari, baizik eta Liberi, emakumeari (Torras, 2022, 36. or.). Horrekin lotuta, azpimarratu beharra dago pertsonaien gurasoengan dauden dinamikak eta genero-estereotipoek haien ondorengoengan duten eragina (Azpeitia, 2022, 125. or.). Ikus daitekeenez, gizonentzat, aitatasuna eta zainketak ez dira ardurak balira bezala ulertzen, baizik eta eskuzabaltasunezko keinu modura (Rich, 1995, 27. or.). Hala, Jasone, Woolfek bere lanean adierazitakoaren kontra, umez arduratzen da: bere espazio propioa haurrekin partekatzen du eta haren grina pertsonalak ahanzten ditu, bikoteak idazteko tokia izan dezan (Lasarte & Perales-Fernández-de-Gamboa, 2021, 505. or.). Pasarte horien bitartez hautematen da nola baldintzatzen dituzten botere-harremanak bikotekideen eta familiako kideen arteko harremanak (Azpeitia, 2022; Colbert-Goicoa & Martin-Etxebeste, 2021). Ondorioz, emakumeak zainketen eta amatasunaren arlora mugatuak dira; gizonak, berriz, maskulinitate hegemonikoaren ordezkari dira.

Hala ere, bi pertsonaien bilakaera pertsonalak narrazioa iraultzen du eta, hala, rolak alderantzikatzen dira. Jasone zaintzen eremutik aldentzen da, eta Ismaelek aitaren kargua hartzen du azkenean. Horri esker, Ismael generoak markaturiko ezberdintasunez eta umeak hezten izan duen rolaz gogoetatzen hasten da: «Eta orduan konturatu zara zu ez zaren beste inori ez dizkiozula inoiz azazkalak moztu, ezta zure alabei ere. Jasonek hartu du horren kargu beti» (Jaio, 2021, 151. or.). Ismael Jasonerengan gertatzen ari den aldaketaz ere ohartzen da. Pertsonaien bilakaera generoaren inposaketei buruz kontziente izateko beharraren aldarrikapena da; egitura patriarkalen aurrean bestelako norabidea hartzera egindako deia (Colbert-Goicoa & Martin-Etxebeste, 2021, 220. or.).

Aurretik adierazi den gisan, Jasonek bere eleberriaren idazketari ekiten dio behin alabak helduak direnean; beraz, uneko idazketa-prozesuan, amatasunak ez du eraginik,

hain zuzen ere, amatasunak aurretik eragin zuelako Jasonerengan, gerora literatura uztera behartuta ikusi baitzuen bere burua. Hortaz, eleberriaren idazketan zehar, Jasonek bestelako zailtasun batzuk izan zituen.

Batetik, Jasonek barneratuta zituen aurreiritziak azaleratuz joan ziren, gehienbat Ismaelengandik jaso zituenak eta, gainera, argitalpen-mundu sexista errepresentatzen zutenak. Jasonek bere lanak jaso ditzakeen iritziei buruz gogoetatzen du –beste emakume idazleek jasotakoekin bat datoz (Rodríguez, 2019)–, haien egiletasuna gutxiesten dutenak gizonenak ez diren gaiak jorratzeagatik. Arrazoi horregatik dio Jasonek: «Ni ez nintzen idazlea. Ismaelentzat nik ez nuen munduko gai *potolo* ziren horiei buruz hitz egiten [...]. Nik banekien Ismaelek nire hitzei ez ziela obra handien usaina hartzen, jogurtezko bizkotxoaren eta ezpainetako kakaoaren usaina baizik» (Jaio, 2021, 45. or.). Woolfek aurretik jada salatu zuen eran, literatur lanek gizartearen baloreen arabera funtzionatzen dute (Woolf, 1977, 80.-81. or.). Bide horretatik, tematika maskulinizatuak lantzen dituzten lanak goraipatuak diren arren, emakumeenak gutxietsiak dira, oraindik ere.

Bestalde, Ismaelez gain, eleberriko gizonetzko beste pertsonaia nagusia Jauregi da, argitaletxe bateko editorea eta, gainera, Jasoneren gaztaroko laguna. Jauregik, Ismaelekin batera, birritan jartzen du Jasoneren egiletasuna zalantzan. Hasteko, Ismaelek Jasoneren eleberria topatzean ez du sinesten literatur lana Jasonerena dela (Jaio, 2021, 35. or.), eta horrek aditzera ematen du Jasone soilik ama eta emazte gisa ikusten duela. Bi gertakizunen artean Jauregirena da guztiz esanguratsuena (Jaio, 2021, 167. or.), Jasonek Jauregiri bere eleberria ematen dionean egiletasuna Ismaeli esleitzen dio, aurretik Jasone Ismaelen lanen zuzendaria izan baitzen. Jauregik, Ismaelen antzera, ez du Jasone idazle gisa ikusten, baizik eta gizarteak emakumeei egokitu ohi dien rolen arabera. Meri Torras-ek dioenez, «emakume batek ezin du hartu autoretza-posizioa: emakumeak hezi egiten du, ez du sortzen» (2022, 44. or.). Hortaz, Jasonek ama- eta idazle-rolak uztartzeko ezintasunari aurre egiteaz gain, behin zainketen eremutik aske denean, gizonak kontrolatzen duten argitalpen-munduaren aurreiritzi sexistei ere aurre egin beharko die. Ayerbek (2021, 29. or.) adierazi bezala, «ondorioztatu daiteke, uneko egiletasuna auzitan jartzen den bezala, *Aitaren etxea* nobelan *aitaren argitaletxea* ere jomugan jartzen dela, sinbolikoki bada ere».

4.1.1. Ate irristatzaile baten hotsa

Jaiok eleberrian garatuz doazen bi eleberri intradiegetikoen bidez mahaigaineratzen duen auzi metaliterarioa ez doa estiloaren ildotik, baizik eta bigarren testu horietan generoaren eta objektu/subjektu diren pertsonaien aldetik. Hau da, genero batetik –eta horrek berarekin dakartzan estereotipo, rol eta bizipenetatik– abiatuta, beste generoko pertsonaia eraikitzeari buruzko hausnarketa literarioa egiten da. Horrek bi bide irekitzen ditu: Jasoneren idazketa eta Ismaelena.

Une batean bi pertsonaiak dabilta emakume bati buruzko eleberria idazten; Jasonek, emakumea den heinean, esperientziaren dimentsio indibiduala eta gorputz kolektiboa bateratzen ditu bere idazketan (Azpeitia, 2022, 133. or.). Ismaelek, ordea, hasieran pentsatuta zuen eleberria alde batera uzten du, emakume bati buruzko eleberri bat idazten hasten da aurretik izan dituen ametsengatik. Horren harira zenbait

elkarrizketa literario daude bien artean. Elkarrizketen mamia hurrengo aipua biltzen du: «Baina kontuan izan ez dela gauza bera gure azalean sartzea eta gure hitzak asma-tzea [...]» (Jaio, 2021, 59. or.).

Bide horretatik, eleberri bat idazten hasteak berebiziko garrantzia du Jasoneren garapen pertsonalean: «Kontzientzia-hartze baten kontakizuna da Jasoneren nobela» (Torras, 2022, 42. or.). Bai eta Ismaelengan ere. Jasonek, emakumearen azalean bizi denez, haren esperientzian oinarritutako eleberria idazten du. Jasonek biltzen dituen ahots horien artean emakume izateagatik gizarte sexistaren jazarpena pairatu duten emakumeen bizipenak ageri dira bilduta –halere, nabarmendu beharra dago amatasunak ez duela berebiziko presentziarik alderdi horretan, baizik eta pertsonaiaren sor-kuntza-baldintzetan–. Horrela, Jasone azkenengo aldiko emakume egileek idatzi duten genero-idazketen ordezkari bilakatzen da:

Bere isiltasunak eztanda egin zuen, eta berearekin nireak, gureak. Eta gureak diot emakumearen hitz bakoitzaren atzean beste hainbat emakumeren ahotsen oihartzuna sentitu nuelako. Lehen aldiz sentitu nuen nire gorputzak beste hainbat emakume-ren gorputzen memoria gordetzen zuela, haien gorputzak nirean egon direla presente beti, belarrira xuxurlatuz une oro zer egin behar nuen eta zer ez, zertarako nuen baimena eta zertarako ez (Jaio, 2021, 42. or.).

4.2. Katixa Agirrerren *Amek ez dute* (2018)

Aitaren etxearekin alderatuta, Katixa Agirrerren eleberriak amatasuna du gai nagusi. Tituluak Susan Rubin Suleimanek, Helene Deutschen hitzetan oinarrituta, esandakoa biltzen du: «Mothers don't write, they are written» (Deutsch, 1945 apud Rubin Sulei-man, 1986, 356. or.). Agirrek «amek ez dute idazten» esaldiaren ordeztu, «amek ez dute» hautatu du bere eleberriaren izenbururako. Hala, esaldi horrek izan ditzakeen adiera posibleak ugaritzen dira, ondoren eleberrian zehar aztertzen dira. Adrienne Richen lanaren ildotik (1995), amatasunari buruzko dokumentazioa eta amatasunaren errelatua uztartzen dituen nobela da Agirrerena; baina, funtsean, amatasuna ez ezik, «ama mal-tzurra vs idazle ona: beste disoziazio bat» (Agirre, 2020, 175.-174. or.) da eleberriaren muina; ama ona izatearen eta idaztearen arteko tentsioen narrazioa⁴.

Eleberria bi planotan egituratzen da. Batetik, protagonistaren amatasunaren bi- zipenari buruzko pasarteak ageri dira eta, bestalde, pertsonaia horrek Jade/Aliceren kasua aztertu ahala nobelaren baitan idazten doan kontakizuna. Liburuaren baita- ko eleberriaren idazketa prozesua Erik jaioberriaren lehenengo bi urteetan zabaltzen den arren, amatasunari buruzko gogoetak haurdunaldia baino lehenagotik jorratzen hasten dira. Izan ere, protagonistak eta Niclasek, haren bikotekideak, umeak eduki- tzeaz zituzten iritziekin hasiera ematen zaio amatasunari buruzko gogoetari (Agirre, 2020, 48.-51. or.). Biek ondorengoak izateari buruzko jarrera nabarmen ezberdinak

4 Era berean, Katixa Agirrek *Amek ez dute* 2018. urtean argitara eman bazuen ere, artikulu honetarako aipua 2020ko argitalpenetik hartu dira.

zituzten. Niclasentzat aitatasuna objektu desiragarria zen zalantzarik gabe. Protagonistak, ordea, amatasunaren irudi abstraktu eta ezkorragoa du. Bien jarreraren arteko ezberdintasunak azal daitezke Urretabizkaiak (Rodríguez, 2019, 34. or.) ardurari buruz baieztatutakoaren harira, protagonistarengan ikusten da jakitun dela amatasunak dakarrenaz bereziki amen kasuan; hain zuzen ere, haurren heziketa lanetan gertatu ohi den erantzukizunaren banaketa ezberdinagatik. Hori dela eta, amatasuna hasieratik hautematen da bestelako ekimenetarako oztopo gisa; gehienbat, amarentzat. Hala ere, bikoteak espero ez zuen haurdunaldiaren lehen egunetan gertatzen da amatasunaz duen ideiarekin aldaketa, orduan hasten baita «umea desiratzen» (Agirre, 2020, 50. or.) eta, beraz, haurdunaldiarekin jarraitzea erabakitzen du.

Aurretik izendatu dugun «amatasunaren kontradiskurtsoa», hots, amatasunaren bi- zipenaren errelatu pertsonala eta ez-hegemonikoa, azaleratzen doa behin umea izanda. Ama berriak erditu osteko lehenengo hilabeteetan frogatzen du amatasunaz zuen ideia ezkorren azpian ageri zen egia. Haurraren behar fisiologikoak asetzea bere bizitza baldintzatzen duen erronka fisiko eta psikologiko bilakatzen da. Diskurtso hegemonikoak adierazitako amatasunaren bizipen idealaren aurka, amatasunaren arduragatik bere identitatea nola ezabatzen den esperimendatzen du, bere burua «titi pare hankaduna» (Agirre, 2020, 20. or.) bihurtuta ikusi arte. Pasarte horretatik hasita, eleberrian agertuz doaz amatasunaren errelatu idealizatuari kontra egiten dioten egoerak. Asperdura, isolamendua (Agirre, 2020, 71. or.), erruduntasuna (Agirre, 2020, 74. or.), bikote harremanaren degradazioa (Agirre, 2020, 149. or.) eta beldurra (Agirre, 2020, 183. or.) pairatuko ditu sentipenak ama berriak. Esan bezala, identitatearen galeratik hasita:

Ama identitateak beste identitate guztiak zurrupatu zituen, antzinako ni horiek guztiak ahanztura absolutuenera kondenatuta. Idazlea ni? Langilea ni? Emaztea ni? Alaba ni? Laguna ni? Trafalgar Square-ko iturrian biluzik bainatu zen hura ni? Uda batez Ness lakuko gidaria izan zenean turista amerikarrekin ligatzen zuena ni? Bai zera! (Agirre, 2020, 33. or.).

Protagonista amatasunaren esperientzia xurgatzailetik ateratzen hasten da Euskadi Saria jaso duela jakinarazten dion deiarekin (Agirre, 2020, 33. or.). Berria ama izan aurretik zuen pertsonalitate eta bizitzaren ikurra da, oraindik ere ama ez ezik, gizabanako eta egile ere badela gogora ekartzen diona. Une horretatik aurrera, idazketa izango da amatasunaren exijentziaren aurreko erresistentzia, indibidualtasuna berreskuratzeko ihesbidea. Ama idazlea izatekotan, bi praktikak bateratzen ahalegintzen da, horretarako lanetik eszedentzia hartzen du eta umea haurtzaindegian uzten du, egoera ekonomikoak baimentzen duen heinean –Woolfek (1977) zein Olsenek (2003) aipatu zuten aldagaietako bat–. Hortaz, hasieran planteatzen zen amatasunaren bateraezintasuna haurraren mendekotasun handitik dator, Del Vallek (1985, 134. or.) ohartarazi zuen moduan, bai eta, aurreko eleberrian ikusi den moduan, umearen ardura amari bakarrik egoztetik ere, aitaren kasuan ez bezala.

Protagonistak eleberriaren idazketari lehentasuna ematearekin –eta ez, ordea, umearen zaintzeari, gizartearen aldetik espero denez– hasiera ematen zaio ama onaren idealaren hausturari. Dena den, amak arketipoarekiko jarrera disidenteak erakustegatik,

erruduntasuna zein presio soziala pairatzen ditu ingurukoen aldetik. Horren arrazoia da instituzioaren arabera, umearen interes eta beharrek amarenak izan behar dutela nahitaez eta horretarako amek bestelako ekimenak alde batera utzi behar dituzte. Arketiporen eskakizunekin ez betetzeagatik «ama maltzur» gisa ikusten du bere burua. Halako jokaerak agerian uzten du amatasunaren diskurtso hegemonikoak amen *psychean* duen eragina.

Erruduntasunaren sentipenak eraginda, ama onaren irudiak dakartzan zenbait betebeharrak betetzen saiatzen da protagonista. Idealarakin bat etortzeko ahalegin horretan idazketa da amak sakrifikatzen ez duen ekimen bakarra. Hala, eleberria idazten hasteari esker, egile identitatea berreskuratuz doa. Horrek amatasunaren bizipen ez guztiz normatiboa garatzea dakar –«Alice eraikitzen ari nintzen, gutxinaka, ni berreraikitzen bitartean» (Agirre, 2020, 75. or.)–. Edonola ere, ama eta idazlea izatea kontrakoak izan dira tradizionalki, amari erabateko dedikazioa eskatzen baitzaio; idazlea, bestalde, pertsona berekoa litzateke, bere idazketa lehenesten duena (Houston, 1995, 711. or.).

Protagonista bere umeak hil dituen amari buruz idazten duen idazlea izatea ez da kasualitatea, patriarkatuaren begietan biak baitira «ama maltzurak» edo, beste modu batean esanda, ama ez-normatiboak. Jade/Alice umeei bizitza eman eta kendu zien ama haur-hiltzailea da, eta protagonista bere identitatea eta interesak lehenesten dituen ama berekoa (Pérez & Sampedro, 2021, 183. or.). Jada Nancy Houstonek baieztatu zuen bi ama-irudi horien artean existitzen den ia erabateko baliokidetzat, biak arautik at geratzen baitira: «so a mother who is willing to kill her own child is pretty much the same thing as a novelist—is that the conclusion I wish you to draw from this enlightening true story? It almost is, as a matter of fact» (Houston, 1995, 713. or.). Beraz, amatasunaren eta idazketaren artean existitzen den bateraezintasunaz gogoetatzen da eleberrian «ama maltzurra eta idazle ona: beste disoziazio bat» (Agirre, 2020, 175.-176. or.) izeneko *check-listean*. Zerrendako *itemen* artean azpimarratzeko modukoa da han biltzen den azkenengoa, «idazle onak, egiaz, gizona izan nahiko luke» (Agirre, 2020, 176. or.) dioena. Aipuak lan domestikoaren eta zaintza-lanaren banaketak sexistagatik sorkuntza-baldintzetan gertatzen den aldea agerian uzten du, gizonei ez baitzaie aitatasunera erabat mugatzeko eskatzen. Alderdi horrek gogora ekartzen ditu aurreko eleberriko Jasoneren esaldiak: «Isilik, aita idazten ari da eta, goazen parkera lasai idatz dezan. Bere Obra Handia idatz dezan» (Jaio, 2020, 86. or.). Olsenek (2003, 18. or.) aditzera eman zuen moduan, idazle izateak eragozpenik ez izatea eskatzen du eta amatasunak, aldiz, nahitaez eragozteko modukoa izatea.

Guztiarekin ere, amatasuna idazketarako oposizio edo integrazio bezala irudikatzearen artean (Suleiman, 1986, 362. or.), eleberria anbiguitasunaren eremuan kokatzen da. Alde batetik, amatasunak eskatzen duen eskuzabaltasuna, sakrifizioa eta, gainera, amatasuna desiragarri bezala irudikatzen duen gizartea kritikatzeko da. Aitzitik, bi orri geroago aurrez esandakoaren kontrakoak baieztatzen du protagonistak: «Baina esan ditzagun gauzak argi. Batzuetan bada gauza ederra, desiragarria, iraultzailea» (Agirre, 2020, 73. or.). Protagonistaren egoera emozional aldakorrean aditzera ematen da amatasunaren irudi hegemonikoaren bestelako bizipenaren lekukotasuna. Eleberriaren

alderdi teorikoagoaren bidez, amen maitasuna imperfektua eta anibalentea dela azpimarratzearekin batera, horri buruzko errelatu alternatiboak sartzen dira, eta esperientziaren errealtate askotarikoak erakutsi.

Esperientziatik idaztearekin amatasunaren instituzioak diktatutakoarekiko erresistentzia sortzen da. Halere, protagonistak, ama onaren sentimendu maitekorren eta ama maltzuraren pentsamendu ilun eta bulkada bortitzen arteko anbigutasunaren eremuan egonda, antzeko bizipena islatzen duen erreferente baten falta sumatzen du, hain zuzen ere, amatasunaren bestelako bizipenen errelatuen presentzia urriagatik. Hortaz, ama onaren topikoarekin ez betetzeak bere bizipenaren alderdi ezkorrak irudikatzen dituen irudia bilatzera darama protagonista, eta amatasunaren bizipen ez-idealak ere existitzen direla ulertzen lagunduko diona. Eleberrian ama maltzuraren irudia muturreraino eramaten da Jade/Aliceren pertsonaiaren bitartez, bere umeengatik sakrifikatzen den ama baino gehiago, bere umeak akabatu dituen ama baita.

Arrazoi horrengatik hasten da protagonista Jade/Alice kasuari buruz ikertzen eta idazten. Ama maltzuraren bizipenaren idazketak bere esperientziaren alderdi ilunagoak ulertzea baimentzen dio. Hala, bi amak ispilu-joko baten bi aldeak dira, Jadek/Alicek amatasunaren inpulstu eta sentimendu biolentoei men egin zien. Protagonista, berriaz, sentimendu aldakorren arteko balantzan dago: bere esperientziaren argi-ilunak ulertzen doa gradualki, horien arteko oreka mantentzeko ahaleginetan.

Protagonistak bi ekimenak bateratzeko xedearekin egindako ahaleginek ez dute bila-kaera lineala. Hainbat alditan umearen zainketa idazlanerako eragozpen bihurtzen da (Pérez & Sampedro, 2021, 184. or.), eta protagonistak ama batek izan dezakeen askatasunaz gozatzeko aukera duenean, ama gisa duen erantzukizuna du gogoan (Agirre, 2020, 194. or.). Protagonistak bizi duen borrokaren une gorena heltzen da Eriken gaitasunaren berri ematen dion deia jasotzerakoan. Une horretan betetzen da «amaren patua» (Agirre, 2020, 196. or.). Amatasunaren instituzioaren arabera ama onek beren buruaren sakrifizioa dute ezaugarri, eta, mandatu horretatik aldentuz gero, erruduntasunaren zigorra dute. Esperientzia hori beste emakume batzuek ere bizi izan dute, horien artean, Adrienne Richek:

The child (or children) might be absorbed in busyness, in his own dreamworld; but as soon as he felt me gliding into a world which did not include him, he would come to pull at my hand, ask for help, punch at the typewriter keys. And I would feel his wants at such a moment as fraudulent, as an attempt moreover to defraud me of living even for fifteen minutes as myself. My anger would rise; I would feel the futility of any attempt to salvage myself, and also the inequality between us: my needs always balanced against those of a child, and always losing (Rich, 1995, 23. or.).

Dirudienez, amak haien bizitza umearen beharretara mugatzera bultzatuak dira hainbatetan. Gizarte heteropatriarkalarentzat eta umearentzat amak ez dira interes eta ekimen propioak dituzten gizabanako gisa hautematen, baizik eta ama gisa bakarrik: «[...] eta ez besterik. Beste guztia sobran zegoen» (Agirre, 2020, 201. or.).

4.2.1. *Uluru. Dingo. Rhodesia. Alaska*

Esan bezala, protagonista Jaderen/Aliceren bizitzari buruz zein amatasunari buruz dokumentatzen da nobelan zehar. Ondoren, protagonista eleberriko orrialdeen artean fikzionalizatuta txertatzen den errelatua idazten doa, hots, eleberriaren barruko eleberria sortzen da. Idazketa bere aurreko identitatea berreskuratzeko tresna da eta, aldi berean, haren nobelaren idazketa-prozesuaren narrazioa haren egiletasunaren etengabeko aitorten eta legitimazioa da. Horrela, Jaderen/Aliceren kasuak eta horri buruzko eleberriak aurrera egin ahala, bilakaera pertsonala gertatzen da protagonistarengan. Idazketa da ama izateaz gain, beste zerbaite ere izateko espazioa.

Kasuaz dokumentatzeko beharrak baimentzen dio lan domestikoaz aparte ekimenak egitea; horrela, besteen begietan idazle, emakume eta pertsona gisa aurkezten da, eta ez ama bezala bakarrik. Idazteko eta dokumentatzeko prozesuari esker, etxetik eta umearen zaintzatik aldentzeko aukera du protagonistak. Epaitegira egindako bidaiari horietan Jakes ezagutzen du, emakume bezala begiratzen duena, eta ez ama bezala. Alderdi horiei guztiei esker «kobazulotik irteteko sentsazioa» (Agirre, 2020, 172. or.) du azkenean. Hori bai, umea izan zuenetik bi urte igaro eta gero azaltzen da sentipen hori, amatasunaren lehendabiziko urteen exijentzia-maila altuak duen baldintzapen gaitasuna agerian uzten duena.

Idazketan zehar Jaderen/Aliceren bizitzaz hausnartzen du, Jade/Alice bere umeak hiltzera eraman zituzten arrazoiak ulertu ahal izateko. Ikerketan zehar Jadek/Alicek bizi izan zituen egoera latzez jabetzen da; horregatik, ama izaterakoan, Jade/Alice osasun mental malkarreko portaerak izaten hasi zen. Protagonista bien amatasunaren esperientzien artean ageri diren alderdi amankomunak topatzen hasten da. Adibidez, Jadek/Alicek margoztatzeko zaletasunari eutsi zion eta, protagonistarekin zein bestelako amen esperientziarekin bat eginez, bien bikoteek haurren zaintza-lanen ardura ia osoa amengan laga zuten. Ezagutza horien bidez umeak akabarazi zion arrazoiaren bila abiatzen da protagonista.

Ikerlerro horren osagarri, historikoki umeak hiltzeko egon diren arrazoiak arakatu zituen. Historian zehar, umeak gehienbat gizonek akabatu izan dituzte askotariko arrazoiengatik eta, denborarekin, amek ere bai (Agirre, 2020, 117.-128. or.). Halere, oraindik harridura handiagoa sortzen dute amek egindako hilketek, amaren arketipoaren haustura definitiboa direlako. Are gehiago, amei aurreikusten zaien ama-maitasun perfektuagatik, maltzurak izateko gaitasuna ukatu ohi zaie amei, eta zoramenaren aitzakiarekin bakarrik ulertzen dira amen eskutik gertatzen diren ekintza bortitzak, nahiz eta ama izan diren askok Jaderen/Aliceren bulkada bortitzak sentitu izan dituzten:

Momentu batez, edo hainbat bider, haren lekuan jarri naizelako. Ni izan naiz esku horiek. Umeak itotzen zituzten eskuak. Amaren eskuak. Errukirik izan ez zutenak. Momentu batez, edo hainbat bider, ulertu izan dudalako egin duena, edo ulertzen dudala eman dudalako aditzera, edo ulertzera hel naitekeela pentsatu eta adierazi dudalako [...] (Agirre, 2020, 208.-209. or.).

Jaderen/Aliceren kasuaren prozesu legalaren amaierara gerturatuz, protagonistak Jade/Alice errudun jo dutelako berria jasotzen du. Horri buruzko idazketa- eta

hausnarketa-prozesura bueltatuz, eleberrian Jaderen/Aliceren portaera azal ditzaketen sei hipotesi aurkezten dira (Agirre, 2020, 202.-203. or.). A hipotesiak proposatzen du Jadek/Alicek bere umeak akabatu izana umeen hauskortasunak amarengan eragindako beldur jasanezinagatik. B hipotesiaren arabera, inpostorearen sindromea izango litzateke hilketaren kausa. C aukerak erditu ostean pairatu daitezkeen gaitz mentalen poderioz egin izana planteatzen du. D aukerak, aldiz, amak umeen gainean zuen gehiegizko boterea du eragile posible gisa. Azkenik, E hipotesiak guraso biek egindako hilketa izatea proposatzen du. Edozein hipotesi zuzena izan daitekeen arren, euren arteko nahasketa ere gerta liteke, hilketaren ostean Jadek/Alicek esandakoa iradokitzen duen moduan: «orain ondo daude» (Agirre, 2020, 11. or.). Esalditik ondorioztatu genezake Jadek/Alicek ikusi zuenean ezin ziela haurrei gizarteak eskatzen zion ama-maitasun perfektua eman; bere umeen heriotza hautatu zuela, Medeak bezala, haurrak sufrimendutik salbatzearen (Ruddick, 1995, 714. or.).

Azken finean, eleberriak eskaintzen duen amatasunaren esperientziari buruzko go-goeta literarioak aditzera ematen du, protagonistaren kasuan, amek ez dutela –eta ezin dutela– beren umearen beharretatik harago doan bestelako interesik garatu; hots, amek ez dutela idazten. Nobelan biltzen diren bestelako errelatuei erreparatuz gero, haren lagun Léaren istoriotik abiatuta, esan daiteke gizartearen aldetik amek ez dutela sexualitatearik, oraindik ere, amatasun birjinalaren irudiak duen zamagatik. Protagonistaren amari dagokionez, hautematen da amek zenbaitetan ez dutela ama izan nahi, baina feminitatearen espektatiba sozialak betetzera behartuta sentitu izan direla, eta Jaderen/Aliceren istorioan oinarrituta, ikusten da amek ez dutela ama onaren topikoa betetzen.

Hortaz, lanaren titulua da eleberrian kontatzen den patriarkatuaren mendeko amatasunaren esperientzia azaltzen duen gakoak: instituzioaren arabera, amek umeak dituzte eta ezin dute besterik izan. Horren aurrean, eleberriak nabarmentzen duen ikuspegia da «amak ez dir[el]a beti kontatu diguten modukoak» (Agirre, 2020, 189. or.). Hau da, amatasunaren bizipena oso bestelakoa izan daitekeela. Gainera, irakurleak honako hau ikus eta uler dezan bihurtzen da nobelaren xede nagusia: «[...] eta zu ere eraman nahi izan zaitudalako lurralde lokaztu horretara» (Agirre, 2020, 208.-209. or.). Amatasun idilikoaren aurrean, literaturak amen esperientzia lokaztuaren lekukotza berreskuratzen du, amatasun ez-normatiboentzako erreferenteak sortzen dira eta idazketa autoezagutzarako tresna modura azaltzen da.

5. ONDORIOAK

XX. mende amaiera aldera Adrienne Rich, Susan Rubin Suleiman eta Susan Griffin feminista anglosaxoiek amatasunari buruzko ikerketa eta literatur lanen falta salatu ondoren, amatasunari buruzko lanketak areagotuz joan ziren, testu teoriko zein literarioetan. Modu horretan, amatasunaren gaia Adrienne Richek (1995, 84. or.) izendatutako *Great silence*an murgilduta egotetik, euskal emakume egileek idatzitako eleberrietan ageri diren errepikapen-maiztasun deigarrienetarikoa duen hari tematiko izatera igaro da, Gema Lasarte (2012) eta Mari Jose Olaziregi (2019) ikertzaileek ohartarazi bezala. Hori horrela, amatasuna gehienbat emakumeek idatzitako literaturaren ardatz bilakatu da.

Testuinguru honetan, artikuluko honek xede izan du idazketaren eta amatasunaren arteko harremanetik sortzen diren inplikazioak aztertzea; horretarako, Karmele Jaio-ren *Aitarene etxea* (2019) eta Katixa Agirreren *Amek ez dute* (2018) eleberrietako ama idazle protagonisten irudikapenak ikergai izan dira. Azterlanean bi elementuak aztertu dira objektu literario gisa, kritika feministak –gehienbat esparru anglosaxoikoa– amatasunari buruz egindako teorizazioak, euskal emakume egileek idatzitako literatura eta ama idazleen sorkuntza-baldintza materialak oinarri hartuta. Idazketa eta amatasuna maila berean kokatzeak –hau da, elkarri eragiten dioten elementu bezala kontuan izatea eta ez prozesu (idazketa) eta gai baten (amatasuna) arteko harreman huts modura– bien arteko elkarriketa ezartzea ahalbidetu du. Era berean, bi eleberrietako ama idazlearen rola betetzen duten bi protagonista aztertzean, idazketa-amatasuna binomiotik sortzen diren esperientzien aniztasunaren zati bat bildu nahi izan da, horrenbestez amatasunaren usteko bizipen patriarkal homogeneoaren irudia urratzeko.

Ildo horretatik, bi literatur lanetako errepresentazioek ezberdintasunak dituzte, hala nola, ama-arduraren eta bokazio artistikoaren arteko eragin-erlazioa irudikatze moduan zein amatasunaren gaiak bi eleberrietan duen presentzia. Hala ere, alderdi komunak ere topatu dira; adibidez, bi protagonistek idazten dituzten eleberriek betetzen duten paper askatzailea eta horien barnean genero ikuspegitik sortzen den idazketa. Ama idazlearen figurak, izatez, amatasunaren diskurtso hegemonikoaren inposizioei egiten die aurre. Ama idazleak diren pertsonaiek zein nobeletan bilduta ageri diren amatasunaren instituzioari buruzko kritika eta hausnarketek, amatasunaren kontra-diskurtsoa mamitzen dute. Idealizazioaren ordez, esperientziaren zailtasunak, anbiguintza eta kontraesanak lehen lerrora ekartzen dituzte. Hala, literatur lanek amatasun berri eta subertsiboetarako erreferenteen sorkuntzan parte hartzen dute. Bestalde, ikerketak amatasunak idazketarekin duen elkarreragineko harremanaren berri ere ematen du, bi jarduerak uztartzen ahalegintzen diren ama idazleen errealitate materiala erdigunean jartzen baita. Funtsean, esperientziatik idazterakoan amatasunaren irudi idilikoa apurtzen da; horren ordez, maitasunez zein suminduraz zipriztinduriko bizipenaren irudikapena da nagusi. Hala, Eider Rodríguezek esandakoaren ildotik:

Ukaezina da literaturan behar-beharrezkoa zela amatasun eredugarria, diabeteseraino azukreztatua eta lañoa ezeztatuko zuten diskurtsoak sortzea, literatura osoa baitago amantala jantzita eta leihotik begira zaintzeko eta emateko prest dauden amez lepo, baita euskaraz idatzitakoa ere. Haatik, etxeko aingeruen kontra *femme fatale*-aren mitoa berreskuratzea bezain dudagarria iruditzen zait *mum fatale*-arena haizatzea (Rodríguez, 2019, 24. or.).

Kasu honetan, irudi literarioek amatasunaz eta literaturaz mintzatu izan diren euskal emakume egileen esperientzia ere islatzen dute, Eider Rodríguezen *Idazleen gorputzak: egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian* (2019) saiakeran bilduta gelditu den bezala. Are gehiago, pertsonaien zein ama egileen bizipenak zuzeneko lotura erakusten dute XX. eta XXI. mendeetako ama egileen sorkuntza-baldintzekin, haien aurka posizionatzen den literatur mundu maskulinizatuan idaztea lortu dute eta, ondoren, sektore horren aurreiritzi sexistei aurre egin behar izan diete. Amatasuna ez ezik, oro har, genero-ikuspegia berez ezinbestekoa da eleberriak ulertzeko orduan. Hori dela

eta, Jaioaren zein Agirreren eleberrietan maila intradiegetikoan sortzen diren beste nobelen berezitasunak ere bat datoz errealitatearekin, bi nobelek ageriko izaera feminista baitute: euskal literatura garaikidean egondako joeren artean ere hauteman daiteke. Bi pertsonaiek auto-ezagutzarako bidea hasten dute idazketaren bitartez. Bidaia literario eta pertsonal horretan, Jasek bere bizitzan emakume gisa barneratu duen memoriari eta min kolektiboari buruz idazten du, eta protagonista izenik gabekoa, ordea, idazketaren bidez bere identitatea berreraikitzen ahalegintzen da, aldi berean. Horrek ama onaren topikoarekin bat ez datorren bere amatasunaren bizipena ulertzea dakar. Horren lekukotasuna irakurleari transmititzeko egiten da. Eleberrien barruko eleberriek generoak ezartzen dituen baldintzez kontziente den idazketa erakusten dute. Hortaz, pertsonaien eraikuntza genero-ikuspegitik egindako amatasunaren zein panorama literarioaren gogoeta da.

6. ERREFERENTZIAK

- Agirre, K. (2020). *Amek ez dute*. Elkar.
- Ayerbe, M. (2021). Editore traduttore: editorearen irudikapena euskal narratiban. In M. Ayerbe (arg.), *Euskal ediziozintzaren hastapen ikerketak* (8.-32. or.). UPV/EHU.
- Azpeitia, L. (2022). Nire *Aitaren etxea* deseraikiko dut: generoak familiako harremanen eraikuntzan duen eragina Karmele Jaioaren eleberrian. *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*, 27, 115-140. <https://doi.org/10.5944/rllgv.vol.27.2022.36159>
- Badinter, E. (1991). *¿Existe el instinto maternal? Historia del amor maternal*. XVII al XX. Paidós.
- Colbert-Goicoa, D. & Martín-Etxebeste, J. (2021). Una nueva ventana para *La casa del padre*: análisis de la novela de Karmele Jaio. *Rassegna Iberistica*, 115, 217-228. <https://doi.org/10.30687/Ri/2037-6588/2021/16/013>
- Del Valle, T. (zuz.) (1985). *Mujer vasca: imagen y realidad*. Anthropos.
- Gabantxo-Uriagereka, M. (2022). Karmele Jaio (1970), una escritora vasca. Explorar la masculinidad feminista. *Biblioteca di Rassegna Iberistica*, 25, 111-120. <https://doi.org/10.30687/978-88-6969-594-0/007>
- Griffin, S. (2020). Notas sobre la cuestión del feminismo y la maternidad. In M. Davey (arg.), *Maternidad y creación: lecturas esenciales* (51.-68. or.). Alba.
- Houston, N. (1995). Novels and navels. *Critical Inquiry*, 21(4), 708-721. <https://doi.org/10.1086/448771>
- Jaio, K. (2021). *Aitaren etxea*. Elkar.
- Lasarte, G. (2012). Amatasunaren gaineko diskurtsoak euskal eleberrigintza garaikidean. In G. Lasarte (arg.), *Feminist agenda: euskal narratiba garaikidean* (107.-144. or.). UPV/EHU.
- Lasarte, G. (2014). *Ultrasounds: Basque women writers on motherhood*. Center for Basque Studies.
- Lasarte, G. & Perales-Fernández-De-Gamboa, A. (2021). Karmele Jaioaren *Aitaren etxearen* kritika kolektiboa eta feminista: proposamen metodologiko berritzailea. *FLV*, 132, 497-514. <https://doi.org/10.35462/flv132.8>

- Lazarre, J. (1994). *El nudo materno*. Las Afueras.
- Llopis, M. (2015). *Maternidades subversivas*. Txalaparta.
- Olaziregi, M. J. (2019a). La felicidad estaba en otra parte. Reflexiones sobre la ultimísima narrativa vasca. In R. Spiller, A. Calderón & K. Moszczyńska-Dürst (arg.), *Extremas. Figuras de la furia y la felicidad en la producción cultural ibérica y latinoamericana del siglo XXI* (11.-26. or.). Peter Lang.
- Olaziregi, M. J. (2019b). Maternidades contestadas en la narrativa de Arantxa Urretabizkaia y Lourdes Oñederra. In I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots, Lourdes Oñederra irakaslearen omenez* (415.-428. or.). UPV/EHU.
- Olsen, T. (2003). *Silences*. Feminist Press.
- Oñederra, L. (1999). *Eta emakumeari sugeak esan zion*. Erein.
- Pérez S. & Sampedro A. (2021). Sobre la recepción de *Las madres no* de Katixa Agirre: maternidad y narración en los sistemas literarios vasco y castellano. *Rassegna Iberistica*, 115, 179-194. <https://doi.org/10.30687/Ri/2037-6588/2021/16/011>
- Rich, A. (1995). *Of woman born: Motherhood as experience and institution*. Norton & Company.
- Rich, A. (2019). *Nacemos de mujer: la maternidad como experiencia e institución*. Cátedra.
- Rodríguez, E. (2019). *Idazleen gorputzak: egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian*. Susa.
- Ruddick, S. (1995). Talking about “Mothers”. In S. Ruddick, *Maternal thinking: toward a politics of peace* (28.-57. or.). Beacon Press.
- Saletti, L. (2008). Propuestas teóricas feministas en relación al concepto de maternidad. *Clepsydra*, 7, 169-183. <https://riull.ull.es/xmlui/handle/915/14275>
- Suleiman, S. R. (1986). Writing and motherhood. In S. N. Garner, C. Kahane & M. Sprengnether (arg.), *The (m)other tongue: Essays in feminist psychoanalytic interpretation* (352.-376. or.). Cornell University Press.
- Torras, M. (2022). Eguneroko gorputzasunaren generoak eta formak Karmele Jaioaren *Aitaren etxean*. In M. J. Olaziregi & A. Elizalde (arg.), *Karmele Jaioaren literatura, emozio gorputzua* (33.-48. or.). UPV/EHU.
- Trujillo, G. & Abril, E. (2020). *Maternidades cuir*. Editorial Egales.
- Urretabizkaia, A. (1998). *Koaderno gorria*. Erein.
- Villagran, A. (2021). La muerte de mi madre me hizo más libre: lectura de los discursos matrofóbicos en la poesía vasca contemporánea escrita por mujeres. In C. Duraccio (arg.), *Escritoras y fronteras geosimbólicas* (435.-455. or.). Dickinson.
- Walker, A. (2020). Un hijo propio: una reflexión importante en el marco del (los) trabajo(s). In M. Davey (arg.), *Maternidad y creación: lecturas esenciales* (153.-174. or.). Alba.
- Woolf, V. (1977). *A room of one's own*. Grafton.
- Yañez, S. (2017). Una genealogía feminista para abordar la maternidad como institución y como experiencia: El legado de Adrienne Rich. *La Manzana de la Discordia*, 12(1), 61-76. <https://doi.org/10.25100/lamanzanadeladiscordia.v12i1.5477>
- Zamora, M. (2020ko abenduaren 12a). Embarazos literarios. *La Vanguardia*. <https://www.lavanguardia.com/cultura/culturas/20201212/6112315/maternidad-literatura-feminista.html>